ORIOKO UDALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

Eguna: 2024ko azaroaren 28a, osteguna.

Tokia: Udalbatzarraren aretoa

Ordua: Hasteko ordua: 19:30 Bukatzeko ordua: 20:30

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Macazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

ORIOKOUDALA

Udalbatzarraren akta
Ohiko bilkura, 2024ko
azaroaren 28koa Orri-zk. 2

GAI-ZERRENDA

1.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2025eko aurrekontu orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal-araua.

2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2025. urterako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

3.- Onartzea, egoki bada, KASTORE GEST SL enpresak Arraunetxearen erabileragatik ordaindu beharreko 2024ko kanona.

4.- Onartzea, egoki bada, Europako funtsak kudeatzean iruzurraren aurkako neurrien plana.

5.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko udalerrian erabilera turistikoak erregulatzeko ordenantzari.

6.- Eskariak eta galderak.

BAT.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2025EKO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL-ARAUA.

Jarraian, Udalbatzarrak Orioko Udalaren 2025eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal-arauaren berri izan du. Horrez gain, udaleko Idazkari-kontuhartzailearen txostenaren berri ere izan du. Txostena aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak eta gastuaren araua betetzeari buruzkoa da. Halaber, Orioko Udalak emandako dirulaguntzen araubide juridikoa arautzen duen Ordenantza Orokorraren berri ere izan du Udalbatzarrak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko azaroaren 22an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 2025eko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen Aurrekontu Orokorrari. Honela laburtzen da aurrekontua kapituluka:

ORIOKO UDALAREN AURREKONTU PROPIOA

Sarreren egoera-orria

Kapituluak	Izena	Euroak
1	Zuzeneko zergak	1.613.318
2	Zeharkako zergak	70.000
3	Tasak eta bestelako zergak	2.812.821
4	Transferentzia arruntak	5.911.553
5	Ondare-sarrerak	574.805
6	Inbertsio errealen besterentzea	95.178
7	Kapital-transferentziak	140.400
	GUZTIRA	**11.218.075**

Gastuen egoera-orria

Kapituluak	Izena	Euroak
1	Pertsonal-gastuak	4.342.690
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	5.157.519
3	Finantza-gastuak	0
4	Transferentzia arruntak	1.087.008
5	Kreditu globala	125.000
6	Inbertsio errealak	505.858
	GUZTIRA	**11.218.075**

2.- ONARTZEA 2025eko ekitaldi ekonomikoari dagokion Orioko Udalaren aurrekontu propioaren exekuzioari buruzko udal-araua, bai eta haren eranskina ere, Orioko Udalak emandako dirulaguntzen araubide juridikoa arautzen duen Ordenantza Orokorra.

3.- JENDAURREAN JARTZEA 2025eko ekitaldi ekonomikoari dagokion Orioko Udalaren Aurrekontu Orokorra, aurrekontu propioak osatua, xedapen hauek ezarritakoa betez: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikulua, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikulua. Baldintza hauetan jartzen da jendaurrean:

a) Ikusgai dagoen lekua: Udaletxeko Idazkaritza-Kontuhartzailetzan.

b) Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarki hau udaletxeko iragarki-oholean eta ohiko lekuetan jarriko da).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluak zerrendatzen dituen interesdunak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroan, bulegoko orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, Aurrrekontu Orokorra behin betiko onartutzat joko da, Udalbatzarrak beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Noemi Ostolaza zinegotziak hartu du hitza, EAJ-PNVren izenean eta ordezkaritzan, eta adierazi du lan ona egin dela Barne Antolaketa batzordeak egin dituen bileretan Orioko Udalaren 2025eko ekitaldiko aurrekontu orokorrari buruzko irizpenak egiteari dagokionez. Eta, hala, bere talde politikoak aurkeztutako zuzenketak aintzat hartu direla kontuan hartuta, aipatutako aurrekontua onartzeko baiezko botoa ematea erabaki dute, eta nabarmendu du akordioa egun gutxitan lortu dela, nahiz eta urte osoan aritu diren lanean.

Ondoren, Noemi Ostolaza zinegotziak adierazi du Udal honen 2025eko aurrekontu propioan gizarte-zerbitzuen arloan gaitutako aurrekontu partidak nabarmendu behar direla, baita Orio herriko kulturari buruzko plan estrategiko bat egin izana ere, eta Orioko udalerrian estalitako parke bat egiteko 6 euroko aurrekontu-partida “ireki” bat gaitu izana ere.

Noemi Ostolaza zinegotziak, azkenik, adierazi du pena ematen diola "Orioko Herritar Foroa" desagertu egin delako ia 10 urteko ibilbide profesionalaren ondoren, eta nabarmendu du Orioko udalerrian antzeko erakunde gehiago izateko beharra dagoela. Aldi berean, adierazi du aurrekontu hauek egokiak direla, eta bere talde politikoaren errespetua eta begirunerik onena merezi duela.

Ondoren, Inaxio Alguacil zinegotziak (EH-Bildu) hartu du hitza, eta eskertu egin du 2025eko aurrekontua onartzeko EAJ-PNV talde politikoaren babesa, eta, aldi berean, udal-teknikariek 2025eko aurrekontua osatzeko egindako lana ere eskertu du, batez ere Udaleko kontu-hartzailetza sailari atxikitako teknikariek egindakoa.

Bestalde, Inaxio Alguacil zinegotziak adierazi du 2025eko gastuen aurrekontuaren ehuneko handiena 1. eta 2. kapituluetan gauzatzen dela, eta, hala, gastuen 1. kapituluak aurrekontu osoaren % 40 inguru hartzen duela. Hau da, % 10 inguruko igoera dakar 2024ko aurrekontuarekin alderatuta.

Era berean, Inaxio Alguacil zinegotziak adierazi du 2025eko aurrekontuko gastuen 2. kapitulua aurrekontu osoaren % 46 dela, eta azpimarratzekoak direla gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta finantzatzeko aurrekontu-partidak, 246.000 euro guztira. Partida horien barruan jasota daude etxez etxeko laguntza-zerbitzuari, tutoretzapeko etxebizitzei, “Txalupa”

programari eta “Zaintza Ekosistema” programari buruzko aurrekontu-partidak; eta “Saregile” etxean zerbitzuak emateko lizitazio publiko bat ere aurreikusten da. Halaber, gizarte-larrialdietarako laguntza ekonomikoak ere jasotzen dira, eta hezkuntza-arloan, herritarren bizikidetzarako aurrekontu-partida berri bat ere bai.

Inaxio Alguacil zinegotziak, amaitzeko, esan du inbertsioen 6. kapitulua mugatuta dagoela 2025eko gastuen aurrekontuko 1. eta 2. kapituluetako aurrekontu-partidek baliabide asko xurgatzen dituztelako. Hala ere, inbertsioei buruzko 6. kapituluan, besteak beste, aurrekontu-partida hauek jasotzen dira:

- Udal-kanpineko igerilekuetako obrak

- Obrak Haurreskolan

- 6 euroko partida irekiak, ekitaldi ekonomikoan zehar beste inbertsio batzuk egiteko

- Irisgarritasuna hobetzeko obrak Goiko kalean

- Arantzazuko Andra Mari auzotegiaren berrurbanizazioa hobetzeko obrak

- San Martin auzoa berrurbanizatzeko obrak

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2025. URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.

Udalbatzarrak Orioko Udaleko 2025erako plantilla organikoaren eta lanpostuen zerrendaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko azaroaren 22an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udaleko 2025erako plantilla organikoari eta lanpostuen zerrendari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udalaren 2025eko plantilla organikoa, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen lekua: Udaletxeko Idazkaritza-Kontuhartzailetzan.

b) Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarki hau udaletxeko iragarki-oholean eta ohiko lekuetan jarriko da).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluak zerrendatzen dituen interesdunak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroan, bulegoko orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, Orioko Udaleko 2025eko plantilla organikoa behin betiko onartutzat joko da, Udalbatzarrak beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ARGITARATZEA Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda, behin betiko onartu ondoren, guztiek haren berri izan dezaten, xedapen hauetan ezarritakoari jarraituz: Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikulua, eta Eusko Legebiltzarraren Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 16. artikulua.

HIRU.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KASTORE GEST SL ENPRESAK ARRAUNETXEAREN ERABILERAGATIK ORDAINDU BEHARREKO 2024KO KANONA.

Udalbatzarrak proposamenaren berri izan du. KASTORE GEST SL enpresak ARRAUNETXEAREN instalazioen erabileragatik ordaindu beharreko 2024ko kanonaren proposamena da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko azaroaren 22an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA KASTORE GEST, SL enpresak 2024. urtean ordaindu beharreko kanona, ARRAUNETXEAREN instalazioak erabiltzeagatik. 18.062,40 €-ko guztizko zenbatekoa izango da, % 25eko hobaria aplikatu ondoren.

LAU.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUROPAKO FUNTSAK KUDEATZEAN IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA.

Jarraian, Udalbatzarrak Europako funtsak kudeatzean iruzurraren aurkako neurrien planaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko azaroaren 22an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Europako funtsak kudeatzean iruzurraren aurkako neurrien plana.

5.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALERRIAN ERABILERA TURISTIKOAK ERREGULATZEKO ORDENANTZARI.

Udalbatzarrak Orioko udalerrian erabilera turistikoak erregulatzeko ordenantzaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko azaroaren 22an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.-LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko udalerrian erabilera turistikoak erregulatzeko ordenantzari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA ordenantza hori, 30 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, interesatu guztiek udal honetako Udalbatzarraren aurrean erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Epe hori igarota, aipatutako erabakiari buruzko erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada, aipatutako udal-ordenantza behin betiko onartutzat joko da, Udalbatzarrak beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Lohitzune Solabarrieta zinegotziak hartu du hitza, EH-Bilduren izenean eta ordezkaritzan, eta adierazi du aipatutako ordenantzaren xedea dela edozein motatako erabilera turistikoa debekatzea etxebizitzarako diren partzela eta eraikinetan, barne hartuta etxebizitza turistikoak, logela turistikoak etxebizitzetan, apartamentu turistikoak, hotelak, pentsioak, etab. Hori guztia, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspenaren esparruan egindako diagnostiko eta azterlanetan oinarrituta.

Amaitzeko, Lohitzune Solaberrieta zinegotziak udal ordenantza horren 3.5 artikuluan jasotako ondorioak azpimarratu ditu.

SEI.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Anuska Esnal alkateak (EH-Bildu) hartu du hitza, Udalbatzar honetako gai-zerrendako puntu guztiak aho batez onartzeko baiezko botoa eman duten udal-korporazioko kide guztiei eskerrak emateko. Eta Orioko Udaleko langile guztiei ere eskerrak eman dizkie, Udalbatzarreko erabaki horiek bertaratutako kide guztiek aho batez hartzeko aukera eman dutelako, urte osoan egindako lan jarraituaren ondorioz.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, alkateak osoko bilkura bukatutzat emateko agindu du, gaurko arratsaldeko zortziak eta hogeita hamar direla. Nik, Udaleko idazkariak, **ZIURTATZEN DUT ETA FEDE EMATEN DUT.**

ALKATE-PRESIDENTEA, **IDAZKARIA,**